


AUZOETAN BIZI

Analisis: Bizitegiren ekintza komunitarioa Bilboko Uribarri eta Otxarkoaga auzoetan



Argitaraldia:

1.a, 2024ko maiatza

Ale kopurua:

200 ale

Egileak:

Aintzane Cabo Bilbao

Irantzu Fernández Rodríguez

Nekane Beloki Arizti

Ikertzaile-taldea:

Aintzane Cabo Bilbao

Irantzu Fernández Rodríguez

Nekane Beloki Arizti

Pablo Ruiz Errea

Estibaliz Castellanos Sopelana

Pedro Manuel Martínez Monje

Maite Arandia Loroño

Esther Zarandona De Juan

Martina Mazorra Huerta

Sonia Gorbeña García

Beatriz Muñoz Liedo

Ricardo Oficialdegui Iriarte

Iñigo Parga Orrantia

David Vega Castrillejo

Argitaratzailea:

Bizitegi

Sede social. Langaran 14, 48004 Bilbao Bizkaia

© BIZITEGI 2024

Dokumentu honek copyright-a du jabetza intelektuala babesteko. Hala ere, Bizitegik ahalik eta gehien zabaltzea nahi du, eta, beraz, kopiatzeko, deskargatzeko edo pertsona fisikoen artean banatzeko baimena ematen dugu, erabilera pertsonalerako bada eta irabazi asmorik gabe egiten bada, eta betiere jatorria eta egiletza aipatzen badira. Beste edozein erabilera edo banaketarako, Bizitegiren baimena behar da.

www.bizitegi.org

AURKIBIDEA

| | |
|---|-----------|
| Sarrera | 7 |
| 1. Testuingurua eta kontzeptu giltzarriak | 9 |
| Egungo gizartearen testuingurua..... | 10 |
| Garapen komunitarioa eta gizarte-kohesioa | 10 |
| Antolamendu komunitarioaren gakoak..... | 11 |
| Hezkuntza-harremana, eta zer efektu dituen | 11 |
| 2. Bizitegiren ekintza komunitario..... | 14 |
| Ikuskera eta Esparru Komunitarioa | 14 |
| Gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza komunitarioa | 16 |
| Hezkuntza-harremana gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza komunitarioan..... | 16 |
| Gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza komunitarioaren inpaktu soziopertsonala ... | 17 |
| Parte-hartze komunitarioaren zentzua eta ikuskera | 18 |
| 3. Ondorioak | 21 |
| 4. Erreferentzia bibliografikoak | 24 |

Eskerrik asko zuen bizipenak, ezagutzak eta denbora proiektu honetan eskuzabaltasun handiz partekatu dituzuen lagun guztioi.

Bilbo, 2024ko maiatza

SARRERA

Egungo gizartearen ezaugarrietako bat da etengabe gertatzea aldaketa demografiko, politiko nahiz zientifiko-teknologikoak, eta horren ondorioz harremanetarako modu eta eremu berriak sortzea eta ingurunean jokatzeko gure erak eta ohiturak eraldatzea. Gainera, gizartearen antolamenduan eta garapenereduetan gertatzen ari diren aldaketek gizarte indibidualista batera garamatzate, eta eragotzi egiten dute garapen egokia, non Giza Eskubideak errespetatu eta babestuko diren eta natura-ingurunearekiko zaintza eta babes sustatuko diren, jasangarritasunaren ikuspegitik. Ruiz et al. (2017) egileek adierazten dute harremanen garrantzia berreskuratzeko lan egin behar dugula, funtsezkoak baitira gizarte osasuntsua izango bada, eta balio horrek pertsona guztiak hartzen baititu bere baitan, gizarte-bazterketako egoeran daudenak barne.

Inklusioa egiazkoa dela esan daiteke, gizarte egokitu egiten denean, eskubideen ikuspegitik, eta pertsona guztien parte-hartzea eta aintzatespena lortzen duenean, baita enplegua lortu ezin duten horiena edo erabateko autonomia lortu ezin duten horiena ere; gizarteak beharrezko baliabideak eta harremanak sortzen dituenean, aukera-berdintasuna lortzeko eta informazioa eskuratzea eta parte hartzea errazteko.

Ikerlan honek EHUren Unibertsitatea-Gizarte proiektuen deialdi baten dirulaguntza jaso du, eta elkarlanean egin dute irabazi-asmorik gabeko Bizitegi elkarteak, gizarte-bazterketan dauden pertsonen alde lan egiten duenak, eta EHUK. Ikerketa-prozesua bi testuinguru desberdinetan eraman da aurrera: Bilboko Uribarri eta Otxarkoaga auzoetan.

Gizartearen erronkei dagokienez, proiektuan lortu nahi diren helburuak bat datoz "Ikerketa zientifiko eta teknikorako eta Berrikuntzarako Estatuko Plana 2017-2020" eta "Ikerketa zientifiko eta teknikorako eta Berrikuntzarako Estatuko Plana 2021-2023" egitasmoen helburuekin, eta honako hauek dira: a) Bizitegiren gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza globalean *komunitario* esaten zaion horrek zer zentzu duen azaltzea; b) elkartearen gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintzaren esparru komunitarioa argitzea eta (ber)eraikitzea; c) Otxarkoaga eta Uribarri auzoetan dimentsio komunitarioak dituen ondorioak aztertzea; eta d) gomendioak egitea, hirugarren sektorean lan egiten duten erakunde eta sareentzat, gizarte-inklusioko politiketarako eta herritarrentzat.

Proiektua aurrera eramateko, metodologia kualitatibo inklusiboa erabili da. Datuak ekoizteko teknikak hauek izan dira: memorietako, planetako eta ebaluazioetako dokumentuen analisia; 59 elkarriketa sakon auzokideei eta erabiltzaileei, profesionalei, auzoetako hezkuntza-zentroetako zuzendaritza-taldeko kideei eta administrazioko langileei; eta azkenik, bi eztabaida-talde, auzo bakoitzeko bana, gizarte-eragileen eta boluntarioen sareek osatuak. Gainera, "Aholku Batzorde" bat eratu da, 6 pertsonaz osatua (elkartean

lagundutako pertsonak, profesionalak eta auzokideak), prozesua eta lortutako emaitzen interpretazioa kontrastatu eta balioetsi ditzan. Planteamendu metodologiko horrek proposatzen dituen esparruak errealtatearen interpretazio hutsetik harago doaz, errealtatea eraldatzeko apustua egiten baitute, egoera pertsonalen atzean zer dagoen aztertuta, eta agerian jarriz gure ikerketan lagun izango ditugun pertsonak bizi dituzten egoeren izaera soziala eta estrukturala.

Ikerketa inklusiboak hainbat metodo baliatzen ditu, eta horiek bat egin dezakete, alderdi zehatz batzuetan, ikerketa partizipatibo, komunitario, askatzaile, feminista... batekin (Nind, 2021). Hala ere, "ikerketa inklusiboa" da terminorik orokorrena ikuspegi horiek guztiak biltzeko; eta ikuspegi horiek guztiek, izatez, helburu bera dute: ikerlaneko pertsonak eta testuinguruak eraldatzea. Ikerketa inklusiboan parte hartu duten pertsonak esperimenduak aske direla berdinen arteko gune dialogiko batean parte hartzeko, inork ez dakiela beste inork baino gehiago, eta jakintzaren eraikuntza interdependentea dela. Paradigma berri bat da; izan ere, ohiko ikertzaile-taldea ireki egiten da, eta sartzen uzten dio ikerketa-prozesuarekin lotutako normahiri. Ikuspuntu horretatik begiratuta, ikuspegi inklusiboak errealtatearen irakurketa soziala jaso behar du, eta, errealtate horretan, pertsonen ongizatearen alde lan egiteaz gain, kemenez eta konpromisoz jardun behar da pertsona horiek egoera zaurgarrira eraman dituzten testuinguruak eta baldintzatzaileak eraldatzen, ikerketan inplikaturik dauden pertsona guztien artean ezagutza sortuz (Sales et al., 2022).

Proiektu honetan funtsezkoa izan da, orobat, parte hartu duten pertsonetako begiramena, eta, helburu horrekin, prozedurei buruzko gogoeta egin da eta gidaliburu bat prestatu da, "Guía para el cuidado en la investigación inclusiva" (Zarandona et. al, 2021).

Oro har, ikerketa-prozesuetan zaintzaren logikatik jarduteak esan nahi du, lehenik eta behin, onartzen dugula ikerketa guztiek, zuzen edo zeharka, eragina izaten dutela pertsonen eskubideetan, ongizatean eta bizitza pribatuan. Horregatik, prozesu horietan, zintzotasunak eta zuzentasunak berebiziko garrantzia izaten dute, parte hartzen duten pertsonen minik ez emateko eta une bidezkoak eta ekitatiboak sortzeko (Mesía, 2007). Hori dela eta, Belmont Txostenean eta CIOMSen jarraibideetan (2002) adierazitakoari jarraitu zaio; hor modu esplizituan esaten da bereziki zaindu behar direla pertsona zaugarrien eskubideak eta ongizatea. Bestalde, kontuan hartu da *Code of Ethics for Social Work and Social Care Research* (Butler 2002) lana; hor esaten denez, ikerketak hainbat mekanismo aurreikusi behar ditu, parte hartzen duten pertsonen eragin ahal zaizkien balizko kalteak (estresa, errudun-sentimendua, autoestimua gutxitzea, bazterketa, etab.) prebenitzeko edo minimizatzeko, bai datuak biltzeko prozeduretan, bai emaitzen analisia eta transferentzia egitean. Horren harira landu genituen barnerako gomendioak, datuen ekoizpenerako, analisirako eta emaitzen komunikaziorako.

Gure kasuan, esan dezakegu proiektuaren hasieratik iruditu izan zaigula guztiz garrantzitsua lantaldean kultura etikoaren gaineko gogoeta-prozesu bat egitea, ikerketako fase eta alderdi bakoitzean. Prozesuan, funtsezkoak izan dira, era berean, lantaldeko kideen eta ikerketan parte hartu duten taldeen nahiz informazio-emaitzen artean sortutako harremanak. Alde horretatik, "Aholku Batzordea" osatzea eta parte-hartzaileen hautaketa, adibidez, ondo hausnartutako prozesuak izan dira, ondo informatuak eta kontrastatuak; izan ere, kontuan izan dugu pertsona bakoitzaren egoera, eta aurrebaldintzat jarri dugu kideek borondatez parte hartzea, ikertzaile-taldearen eta informazio-emaitzen arteko elkarrekotasun-harremanean. Parte-hartzaile guztien "baimen informatua" hartu da abiapuntutzat, eta aipatu beharra dago proiektuak "EHUren etika batzordearen" oniritzia jaso zuela.

1. TESTUINGURUA ETA KONTZEPTU GILTZARRIAK

Bizitegi irabazi-asmorik gabeko elkarte bat da; 1980an hasi zen ekintza komunitarioan lanean, eta 1988an eratu zen elkarte gisa.

Euskadin, gizarte-ekimeneko elkarteek hogeita hamar urtetik gora daramatzate ildo horretan lanean eta errealitate berrietara egokitzen. Bizitegik gizarte- eta hezkuntza-arloko hainbat ekimen eramaten ditu aurrera aztertutako auzo horietan, Bizkaian gizarte-bazterketa pairatzen duten pertsonak edo horretarako arriskua duten pertsonak gizartean bizikidetzan bizi daitezen. Horretarako, esku-hartzeko prozesuak egiten dira pertsona horien bizi-baldintzak hobetzeko, bai eta sentsibilizazio- eta salaketa-ekintzak ere, gizarte justuago bat eraikitzeko kontzientzia sortzearren. Entitate honek ibilbide mamitsua du egina komunitateari dagozkion gaietan.

Esparru horretan kokatzen dira ikerketa-proiektu honen oinarrian dauden erreferenteak. Parte hartzeko esparrua da, pertsonak aintzakotzat hartzekoa, harremanak hobetu, bideratu edo eraikitzekoa, gizarte-sarea sendotzekoa eta gizarte-aldaketa eragitekoa, eta gizarte kohesionatuago eta justuago bat bilatzekoa.

Eito & Gómez (2013) egileek komunitate hitzaren konplexutasuna aipatzen dute. Are gehiago: komunitateaz dugun ikuspegia, eta kontzeptuaren eraikuntza bera ere, eskas geratuko lirateke, diziplina-arteko hurbilpen bat egin gabe. Komunitatean gizarte-eragile desberdinak ari dira interakzioan. Marchioni-ren arabera, hauek dira gizarte-eragile horiek: administrazioak, baliabide teknikoak eta profesionalak, eta herritarrak; azken horiek beren erakunde eta elkarteen bitartez bideratzen dute, bereziki, beren parte hartzea. Era berean, komunitatea bere prozesuen subjektu aktiboa da, beharrak detektatzen ditu, eta ikusarazi egiten ditu, denen parte-hartzeaz egindako diagnostiko-prozesuen bidez, eta guztion ongia hobetzeko ekintza komunitarioak abiarazten ditu. Ekintza komunitario horiek gidatzen eta orientatzen dituzten printzipioak gizarte-balioen multzo baten inguruan eratzen dira, desabantailan dauden komunitateei ahots autonomoa emanaz, eta pertsonen, instituzioen eta agentzien trebetasunak indartuz, herritarrekin batera komunikazio ona izanda lan egin dezaten, gizartea eraldatzeko.

Ondoren, lehenik eta behin, egungo gizarte-testuingurua aurkeztuko dugu, ikergai ditugun ekintza komunitarioak zer-nolako inguruetan egiten diren erakusteko asmoz. Bigarrenik, Komunitate Garapenaren kontzeptua eta bazterketa-testuinguruetan gizarte-kohesiorako prozesuek duten garrantzia berrikusiko ditugu. Azkenik, komunitate-antolamenduaren gakoak erakutsiko ditugu; hor, erabakigarria izaten da hezkuntza-harremana, bai eta harreman horrek komunitatean eratutako gizarte-loturetan duen eragina ere.

Egungo gizartearen testuingurua

Zalantzarik gabe, hiri-testuinguruaren aldaketan eragina duten prozesuak asko dira. Besteak beste, aipagarria da prozesu ekonomikoaren globalizazio gero eta nabarmenagoa, eta, horrekin batera, gizarte-prozesuak gero eta gehiago gauzatzea tokian-tokian (Hamzoui, 2005). Gizarte-kohesioa ere prozesu horien eraginpean dago, baina gizarte-kohesiorako eremu edo egoera desberdinak bereiz ditzakegu, alde batetik, norbanako bakoitzak lanaren gizarte-banaketa duen kokapenean oinarrituta, eta bestetik, gizarteratzeko sareetan duen parte-hartzean oinarrituta. Batetik, lanpostu egonkor bat, gizarte-inklusio ona eta harreman sendoak izanez gero, gizarte-kohesio eta -inklusio handia lortuko da. Bestetik, kontrako kasuan, hau da, pertsonak lanik ez badu eta bere gizarte-sarea eskasa bada, desafilazioa sortuko da. Bi egoera horien artean, gizarte-zaugarritasunaren egoera dago, gaur egungo munduan modu kezagarrian ari dena zabaltzen, eta batera agertzen dituen lan-prekarietatea eta hurbileko euskarrien ahultasuna (Castel, 1999).

Egoera horri buruz ari zen Moreno (2012), Espainiako ongizate-estatua testuinguru europarrean aztertzean, herritarren eskarien arrisku-egoerak eta gizarte zibileko erakundearen protagonismo gero eta handiagoa aipatu zituen. Hala ere, esku-hartze sozialeko profesionalen jardunari dagokionez, hasteko, esan beharra dago maila horretan jardun komunitarioak oso gutxi direla esku-hartzeen beste maila batzuekin alderatuta, eta norbanakoa hartu izan dela ardatz, gizartean gertatzen den bezala (Cabo. et al, 2021). “Joera hori baldintzatuta dago, alde batetik, profesionalen prestakuntzagatik, eta bestetik, profesional horien jarduna esku-hartzeen eredu tradizionalaren arabera delako oraindik ere” (Fernández & Egido, 2014, 264. or.). “Hor izaten dira beharrezkoak zehar-logikako ikuspegiak, tokian tokikoak eta komunitarioak (Jaraiz, 2009, 104. or.).

Garapen komunitarioa eta gizarte-kohesioa

Endorsement & Quality Standards Board (2017) argitalpenaren arabera, hau adierazi nahi da kontzeptu horrekin: garapen komunitarioak duen gaitasuna, pertsonen kolektiboki lan egitea lortzeko, eta hala gizarte-aldaketa positiboa ekartzeko, horretarako beharrezkoa izanik bai bere beharrak eta ekintzak identifikatzea; bai ekintza kolektiboa, bere indarrak eta baliabideak erabiliz; bai bere konfiantza, trebetasunak eta ezagutza garatzea.

Garapen komunitarioaren kontzeptua ‘empowered communities’ ideian oinarritzen da. Erresuma Batuan garatu zen ideia hori, *Empowered Communities in the 2020s Research Project*¹ proiektuan.

Azken bi hamarkadetan, batik bat, gertaera eta egoera zehatz batzuen ondorioz (murrizketak gizarte- eta osasun-zerbitzuetan, gizarte- eta osasun-arloko arazoak areagotzea, etab.) gizartearen babes komunitarioak garrantzi handiagoa hartu du, bai hedatu egin delako (esku-hartzeen esparru desberdinetan garatu da: osasuna, droga-menpekotasuna, onkologia, familia, etab.) bai eta gaur egun garrantzi eta gaurkotasan handia duelako ere teoriarik eta praktikan.

1 <https://localtrust.org.uk/news-and-stories/news/empowered-communities-project-plan>

Antolamendu komunitarioaren gakoak

Egungo gizarteek zatiketarako joera dute, pertsonen migrazio- eta mugikortasun-premia berriengatik. Gizarte-lokarrien faltaren ondorioz, ongizaterako funtsezkoa den zerbait galtzen dute pertsonak: gizarte-kohesioa. Testuinguru horretan, komunitate-antolamendua bihurtu da bazterketarik gabeko giroak ziurtatzeko baliabidea eta bitartekoa, non pertsonak lotuta dauden interes komunengatik, eta prozesu berean, beren burua eta beren komunitatea ulertzen duten eta beren buruarengandik eta komunitatearengandik ikasten duten.

Era horretan, pertsonen arteko lankidetzarako aukerak sortzen dira, eta bata bestearen bizitza-egoeretan eragiteko aukerak. Ronnby-k (2013) komunitatearen antolamenduaren gako egoki batzuk deskribatzen ditu, agertoki berriak eta interesgarriak zabaltzen dituztenak. Egilearen arabera, funtsezkoa da taldeen barneko prozesu dialogikoa, aukera ematen duelako lehenago aukerarik ez zen lekuan aukerak zabaltzeko, mugetatik harago joateko, gogoeta berriak sortzeko, eta gogoeta horietatik ekintza berriak sortzeko. Irudipen, iritzi, ohar eta esperientzia berriek ezagutza berria dakarte, beste pertsona batzuekiko elkarrizketaren bidez. Interakzio horren bitartez, pertsonak beren buruaren eta munduaren kontzientzia handiagoa hartzen dute, eta horretan datza ezagutzaren teoria praktikoa, hiru elementu hauetatik osatua: esperientzia berriak, gogoeta eta elkarrizketa, eta ezagutza berria. Era berean, egile berak *Leading Lights* deritzen pertsonen garrantzia azpimarratzen du. Pertsona horiek, egoeraren eta baldintzen arabera, taldearen konfiantza dute, egoten dakitelako, gauza askotarako balio dutelako, konpromisoa hartu eta dedikazio handiz jarduten dutelako, edo ekimena erakusten dutelako erabakiak hartzean eta ekintzak aurrera eramatean.

Ezinbesteko baldintza da pertsonak erabat sinestea bai proiektuan eta bai egoera eraldatzeko duten ahalmenean. Komunitateak edo sormen-taldeak osatzen dituzten pertsonak beren burua antolatzen dute, gaitasunak garatzen dituzte, komunitatearen bizi-baldintzak hobetzeko eragin-fluxuak sortzen dituzte, eta gizarteko erreferente bihurtzen dira, bai eta gizarte-aldaketan eragile ere.

Ekintza komunitario deitzen diren horiek eszenarioak eta topalekuak sortzen laguntzen dute, komunitatea osatzen duten pertsona guztien garapena sustatzeko (Núñez et al., 2014). Egile horien hitzetan:

Hauxe da ekintza komunitarioa: gizarte-sareak eta eguneroko bizitzak pertsonen artean, instituzioen artean eta pertsona eta instituzioen artean eragindako interakzioen emaitza. Horrek esan nahi du badela giza kolektibo bat, kidetasun eta identitatearen kontzientzia partekatzen duena, era egituratuan jarduteko gai dena bere ingurunea nahi duen bezala eraldatzeko, eta elkar hartuta jarduten duena, bere helburuak lortzeko (86. or.).

Hezkuntza-harremana, eta zer efektu dituen

Gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintzaren eta ekintza pedagogikoaren egiazko protagonista hezkuntza-harremana da, teknikariak eta/edo profesionalak, herritarrak eta komunitatea bera baino are gehiago (Úcar, 2018). Egile horren arabera, "gizarte-eta hezkuntza-arloko esku-hartzeek, berekin hezkuntza-harreman bat ekartzen ez badute, ez dute inolako zentzurik izango, eta seguru asko, emaitza eskasak izango dituzte, edo ez dute batere emaitzarik izango" (Úcar, 2018, 61. or). Hau da, "hezkuntza-harremana

da hezteko ekintzaren forma substantiboa, haren egintza zehatza da" (Touriñán, 2012, in Touriñan, 2013, 31. or.), edota Parcerisa et al. (2010) egileen hitzetan, horixe da gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintzaren muina da, eta horrexegatik, analisi honen muina ere bai.

Idea horretan aurrera eginda, García Pérez-en eta Mendiaren (2015) arabera, "harremanaren kalitatearen bidez hezten da". Alegia, hezitzaile guztiek heldu beharreko eginkizun nagusietako bat da hezkuntza-harreman egokia ezartzea (Fuentes eta García Bermejo, 2014). Baina, zer esan nahi du hezkuntza-harreman bat kalitatekoa, egokia edo justua izateak? (Martinis, 2015).

Alde batetik, azpimarratzen da harreman horretan parte hartzen duten pertsonen testuinguru sozial eta kulturean integratuta egon behar duela hezkuntza-harremanak (Ngo et al., 2018). Kontuan hartu behar da, gainera, pertsona horiek konplexutasun handiko giro soziokulturaletan bizi direla (Úcar, 2018), eta konplexutasun hori guztia ulertzea funtsezkoa dela hezkuntza-harreman egokia ezartzeko (Ngo et al., 2018).

Beste alde batetik, hezkuntza-harremana nahita egiten da, hau da, "hezkuntza-agentearen asmoa funtsezkoa da, egindako jarduketek esangura izango badute" (García Pérez & Mendia, 2015, 47. or). Gauzak horrela, aipatu beharra dago plangintza dela hezkuntzaren ezinbesteko ezaugarrietako bat, hezkuntza hori jardun profesionaltzat hartua izateko (Parcerisa et al., 2010). Plangintzak beti abiatu behar du hezkuntza-asmoei buruzko gogoetatik, eta beraz, jakin behar da esku-hartzea non egingo den eta zer asmorekin. Gainera, garrantzitsua da subjektuak berak (norbanakoa nahiz kolektiboa) inplikatu nahi izatea hezkuntza-harremanean; izan ere, hala ez bada, ezinezkoa izango da ezer aldatzea (Úcar, 2018). Borondatezkoa izatea da, beraz, hezkuntza-harremanaren bere-berezko beste ezaugarrietako bat.

Egile horren arabera, azkenik, funtsezkoa da pertsonen potentzialtasuna izatea hezkuntza-harreman guztien gida eta sostengua, eta horren gainean eraikitzea harremana, eta ez hainbeste pertsona horien beharren gainean. Bestalde, hezkuntza-harremana botere-harremana ere bada; alegia, beste era batera esanda, boterea hezkuntza-harremanaren funtsezko osagaia da (Martinis, 2015). Lehenik eta behin, harreman asimetrikoak gainditzeko ezinbestekoa da desberdintasunak desnaturalizatzea, eta gogoan izatea hezkuntza-harreman guztietan daudela botere-harremanak, eta beraz, beste pertsona berdintasunez aintzat hartu eta errespetatu behar dela (O'grady, 2015; Sánchez & López, 2016; Tsabar, 2017; Ngo et. al, 2018). Horrek esan nahi du profesionalak ez dutela adituaren rola hartu behar, eta, beraz, irekita egon behar dutela beren lanaren xede diren pertsonen errealitatea kontuan hartuta jarduteko (Fuentes & García Bermejo, 2014).

Tsabarren arabera (2017), bigarrenik, hezkuntza-harremanak honako hauek izan behar ditu oinarrian:

- zintzotasuna eta konfiantza (Ngo et al., 2018)
- segurtasuna (Fuentes & García-Bermejo, 2014)
- gardentasuna (Fuentes & García-Bermejo, 2014)
- enpatia (Fuentes & García-Bermejo, 2014)
- eskuragarritasuna (Ngo et. al, 2018)

Horrek guztiak berekin dakar lagun-egitea bera eta komunikazioa bera izatea hezkuntza-harremanaren ardatzak (Parcerisa, 2010).

Hirugarrenik, Fuentes & García-Bermejo (2014) egileen arabera, ez da bistatik galdu behar zaintzaren etika; horrekin esan nahi da hezkuntza-harreman orotan bermatu behar dela bestea zaintzea, hau da, besteari laguntza eskaintzea (Sánchez & López, 2016; Ngo et. al, 2018) eta segurtasuna eskaintzea (Fuentes & García-Bermejo, 2014). Eta, tradizioz alde batera utzi bada ere, zenbait egilek hezkuntza-harreman guztietan funtsezko osagaitzat aldarrikatzen dute afektibotasuna, giro egokia sortzen baitu ezagutza eraikitzeko (Ribeiro, 2010; Fuentes & García-Bermejo, 2014). Izan ere, Sánchez & López (2016) egileen arabera, hezkuntza-harremanak lotura afektiboen beharra du. Beraz, intimitatean oinarrituta egon behar du (Sánchez & López, 2016; Tsabar, 2017; Ngo et. al, 2018). Hezkuntza-harremanen laugarren gako-alderdi bat da helburuetarako interes komun bat ezartzea eta zehaztea (Fuentes & García-Bermejo, 2014), eta, ildo horretatik, harremanak elkarrekikoa behar du (Ngo et al., 2018), betiere autonomian eta askatasunean oinarritua. Bosgarrenik, hezkuntza-harremana ondoren banantzeko asmoz ezarri behar da (Sánchez & López, 2016), alegia, abiarazten den unetik bertatik argi izan behar da harreman hori behin-behinekoa dela, eta planteatutako helburuak lortzen diren arte iraungo duela. Azkenik, garrantzitsua da ongi ulertzea hezkuntza-harremanaren prozesuak denbora behar duela (Ngo et al., 2018) lankidetzako testuinguru bat sortzeko (Fuentes & García-Bermejo, 2014), eta aipatutako gako-alderdi horiek guztiak landu ahal izateko.

Hezkuntza-harremanak pertsonarengan dituen efektu horiez gain, parte-hartzaileen familiek ere sumatzen dute hezkuntza-harreman horren eragina: azpimarratzen dute gurasoek profesionalen laguntza sentitzen dutela, berdintasunezko tratu onari esker eta lagun egiteko prozesuari esker. Arreta pertsonalizatuaren bidez sentitzen dute entzuten zaiela, eta beren konfiantza, beren gaitasunak eta, are beren autoestimua ere, handitzen dira. Horrek ahaldundu egiten ditu familiak, eta auzoko beste eragile eta instituzio batzuetara jotzeko dituzten errezeloak gainditzen laguntzen die.

Hezkuntza-harremanaren bidez, parte-hartzaileen bizitzak eraldatzea lortu nahi da, “haiengan kontzientziazio-prozesuak kitzikatuz, beren bizitzaren errealitate pertsonalak eta komunitarioak eraldatzera bultzatzeko” (Úcar, 2018, 62. or.); hau da, pertsonak beren burua aldatzera iristen direnean, errealitate eta egitura sozialak aldatzera ere iristen dira. Beraz, hezkuntza-harremanak pertsonen hazkuntza indibiduala eta soziala indartzen ditu, eta pertsona eta komunitatea beren bizi-proiektua eraikitzen eramatean ditu (García-Pérez & Mendiá, 2015).

2.

BIZITEGIREN EKINTZA KOMUNITARIO

Bizitegiren lanaren funtsa da bazterketa-egoeran dauden pertsonen beren bizi-prozesuetan lagun egitea, eta sentsibilizazioa lantzea, gizarte justuago bat sortzeko, berdintasuna bilatuz, desberdintasunak onartuz eta estigmak murriztuz. Lagun egiteko prozesu horiek komunitatean egitea bultzatzen da, komunitateak harremanetarako, parte hartzeko eta kide sentitzeko lekua eskaintzen dituelako. Hori dela eta, Bizitegik bere esku-hartzeetan bereziki izaten ditu gogoan: lotura (ezinbestekoa elkarren onura ulertzeko eta parte hartzea sustatzeko); bizi-kalitatea (bizitza esanguratsua duela sumatzea bai pertsonak eta bai haren inguruak, eta horren ondorioz, goxotasuna, berekin baitakar giza kontaktua eta afektibotasuna...) eta erantzunkidetasuna (horrek berekin dakar guztion ongiari ekarpena egin nahi izatea, beste pertsonen ekarpenak aitortzea eta geure burua aitortzea). Azkenik, Bizitegiren lagun egiteko prozesuan eta lan komunitarioan bada beste elementu giltzarri bat, aurretik esandako guztia ukitzen duena: zaintza. Bizitegiren jardunean, zaintzat jotzen da, besteak beste, gure inguruko pertsonen arduratzea, entzuketan eta afektibitatean oinarritutako harreman afektiboak sortzea, eta pertsonen guztion ongiari beren ekarpena aktiboki egin diezaioten sustatzea.

Ondoren, emaitzak aurkeztuko ditugu, 5 ataletan banatuta: Ikuskera eta Esparru Komunitarioa, gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza, hezkuntza-harremana, inpaktu soziopertsonala eta parte-hartzea.

Ikuskera eta Esparru Komunitarioa

Morataren (2014) arabera, Pedagogia Sozial Komunitarioa delakoak –horretan oinarritzen da Bizitegiren ekintza– bere ekintza aurrera eramateko erabiltzen dituen funtsezko metodologiak hauek dira: lagun-egite psikosoziala eta hezkuntza-arlokoa, animazio soziokulturala eta lan komunitarioa. Metodologia horien ikuspegitik, pertsona (banako gisa) eta komunitatea (interakzio gisa) dira ekintzen agente protagonistak.

Lehen azaldu denez, lan komunitarioa edo esku-hartze komunitarioa komunitate baten garapena sustatzeko egindako ekintza-multzo bat da, komunitateak bere errealitatearen eraldaketan aktiboki parte hartuz egina (Mori, 2008); hau da, pertsonen aktiboki hartzen dute parte beren errealitatearen eraldaketan, beren arazo zehatzetatik abiatuta. Beraz, esku-hartze komunitarioaren prozesuak integrala behar du (kausak eta ondorioak kontuan hartuta) eta dinamikoa. Horretarako, pertsona bideratzaile baten figura egon daiteke, komunitateko kide diren taldeen mobilizazioa sustatu dezan, bistatik galdu gabe ekintzak eraginkorrak izango direla lehenengo fasetik lortzen bada gizarte-errealitate horren partaide diren eragile guztien inplikazioa.

Ikerketa honetan, gizarte-bazterketaren aurka eraginkorrak izango diren ekintza komunitarioen analisisian oinarritu gara. Abiapuntutzat hartuta pertsona batek ingurune gutxi-asko zabal batean duen parte-hartzearen kantitatearen eta kalitatearen arabera definitzen dela gizarteratzea (Funes & Raya, 2001), beren ekintza pedagogikoa herritartasunaren eraikuntzan eta lan komunitarioan oinarritzen duten esperientziak topatzen ditugu, zeinak pertsonen parte-hartze aktibo, autonomo eta irmoaren alde egiten duten, programa edo ekintza horien eragile nagusitzat hartuta. Garapen komunitarioaren arloan Bizitegik aurrera eraman duen azken ekimenetako baten arabera, parte-hartzea ikasi eta praktikatu egiten da, eta, horretarako, hezkuntzarako giroak, mekanismoak eta egiturak behar dira, hori errazteko eta ahalbidetzeko (Aurkigune, Bizitegi). Horren guztiaren helburua da parte-hartzaileen ongizate subjektiboa hobetzea eta gizarte-kohesioa sortzea, ingurune hurbilenean eta hiri-ingurunean. Aurrera eramaten duten ekintza komunitarioari esker hainbat gauza lortzen dira: gizarte-sarea sendotzea; entitateak erabiltzea mekanismo inklusibo gisa; gizarteko sektore ahulenak txertatzea herritarren erakunde eta entitateetan; salatzea eta ekintzaren xede diren kolektiboek beraiek ere parte har dezaten erraztea; auzokideen sentsibilizazio soziala sustatzea; ekintzak egitea, komunitateak berak arazoaren prebentzioa egin dezan eta inklusiboagoa izan dadin. Aztertutako dokumentaziotik ikusten da Bizitegirentzat beharrezkoa dela gizarteak ulertzea pertsona batzuek bizitza osoan zehar beharko dutela laguntza, eta gizarteari egingo dioten ekarpena ez dela haien enplegarritasunetik etorriko, beste bide batetik baizik; ulertzea badagoela komunitateari ekarpena egiteko beste sistema bat, transakzio ekonomikoa ez dena, eta zerikusi handiagoa duena harremanen eta lankidetzaren munduarekin, gure komunitate-bizitza hobetzearekin, gure bizi-kalitatea hobetzearekin eta gu geu garatzen gareneko komunitatea hobetzearekin.

Bizitegik badaki bazterketa-egoeran dauden pertsonen ekarpen komunitarioak eraldaketa eragiten duela, bestelako herritartasun-eredu bat sustatzen duelako, senidetasunetik abiatzen dena eta gizarte-estigma saihesten duena, eta zenbait jarrera sustatzen dituena, hala nola harreman naturalak, beste pertsona errespetatzea eta onartzea, eta aniztasunaren balioespina. Auzoetako dimentsio komunitarioa ezagutzeko egindako elkarrizketetan (pertsona erabiltzaileei, profesional eta boluntarioei, auzokideei), ikusten da pertsona guztiek "komunitatea" esanda gauza bera ulertzen dutela, eta lotuta ikusten dutela elkar ezagutzeko sentimenduekin, hurbiltasunarekin, komunikazio eta bizikidetzaren osasungarriekin, une zailtan laguntza eta elkartasuna ematearekin, eta taldeko kide sentitzearekin.

Pertsonak auzo-sentimendu sendoa dute, jatorriarekin, sustraiekin eta eskaera eta aldarrikapen komunekin lotua. Goxo hitz egiten dute auzoaz, eta oroimenez alderatzen dute nolakoa zen lehen eta nolakoa den orain, bai eta nolakoa den orain eta nolakoa izan litekeen ere, bertan gehiago inbertituz gero. Harro daude auzokoak izateagatik, eta identifikatuta eta babestuta sentitzen dira.

Era berean, ikusten da ehundutako harremanek komunikazioa, konfiantza eta segurtasuna dakarzkiena. "Komunitateko kide" izateko sentimendu horretan, elkarteko erabiltzaileekiko harremana oso atsegina dela adierazi dute, eta etengabeak izan dira elkartasun-uneei buruzko aipamenak.

Gainera, haien esanetan, zailtasuna sortzen denean, pertsonak elkartu egiten dira eta auzoaren eta komunitatearen sentimendua azaleratzen da. Komunitatea gero eta gehiago dago presente, gero eta gehiago dago auzo horietan egoerarik zaugarrian dauden pertsonen zerbitzura.

Hori guztia pixkana-pixkana lortu da, denborarekin. Eta une bat iritsita, Bizitegik erabaki zuen, auzora atera eta auzoko bizitzan parte hartzeaz gain (erosketak eginez, kafea hartuz, eskaeretan edo manifestazioetan

parte hartuz, jardunaldiak antolatuz, hezkuntza-zentroetan bizipenak partekatuz, jaien antolaketan parte hartuz, "Homeless Film Festival" zinemaldia antolatuz, etab.), bere ateak irekitzea eta auzoa elkarrean parte hartzera eta elkarrean goatzera gonbidatzea, batik bat harremanak sortzeko asmoz, bazterketa-egoeran dauden pertsonen zaugarritasuna gaitzitzen laguntzeko. Auzotarrek hainbat jardueratan parte hartzen dute, bisitak egiten dituzte, eta horietakoren batean iraunkorki parte hartzen geratzen dira. Horren adibide bat da "Zenbatu" taldearen "antzerki komunitarioa" deritzon jarduera, komunitatea sortzeko eta komunitateari eusteko funtsezko guneetako bat.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza komunitarioa

Erakundeari buruzko dokumentazioan agertzen den bezala, eta profesionalak adierazi duten bezala, ezarritako hezkuntza-paradigmak ikuspegi kritikoa, komunitarioa eta konprometitua du.

Alderdi hauek dira ikuspegi horren ezaugarriak:

- a. Horizontaltasuna gailentzen da:** horren isla dira elkarrekin ikasteari ematen dioten garrantzia, buruz buruko harremanak, profesionalen erabateko prestasuna izanda, antzerkiak agente berdintzaile gisa duen funtzioa, eta profesionalaren eta gainerakoen artean hierarkiarik ez izatea.
- b. Pertsonen premietatik abiatuta eraikitzen da:** gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintzaren beste gakoetako bat da pertsonen premietatik abiatuta eraikitzen dela. Pertsonak beren beharrak adierazten dituzte, eta laguntza non behar duten identifikatzen dute. Gainera, ez da inor epaitzen (erabiltzaileen iragana dela eta), hainbat lagunek adierazi duten bezala. Hezitzaileen inplikazioa eta konpromisoa da azpimarratu beharreko beste gauzetako bat. Jarrera positiboa eta proaktiboa dute, eta erreferentziako pertsonak dira.
- c. Ikuspegi komunitarioa du:** Arlo komunitarioak esparru askotako pertsonak inplikatzen ditu, eta Bizitegi elkargune bat da, eta erreferente bat, beti lehen planoan agertzen dena. Askotan azpimarratu da elkarrekin eraikitzen eta lan egiten dela.

Hezkuntza-harremana gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza komunitarioan

Atal honetan, profesionalen eta erabiltzaileen artean sortzen den harremanaren ezaugarri garrantzitsu batzuk agertuko ditugu. Hezkuntza-arloko esku-hartzeari buruzko literaturan ikusi den moduan, hezkuntza-harremana eta sortzen diren loturak dira ekintza txukun eta arrakastatsu baterako oinarriak.

- a. Lagun egiteko eredia aurrera egin ahala ezartzen da:** Bizitegiren profesionalak lagun egiteko darabilten eredia aurrera egin ahala ezartzen da: askatasunez, presiorik gabe, hurbiltasunez, pixkanaka, arian-arian. Hurbiltasun bat sortzen da, eta horren bidez loturak sortzen dira.
- b. Balioak:** azpimarratu behar den beste gauza bat da harremana balioen gainean eraikitzen dela. Askotan aipatu dute tratu afektiboa, profil guztietako pertsonak. Hezitzaileak familiakotzat jotzen dituzte, eta pertsona ausartak eta profesionalak direla diote, beren lanarekin oso konprometituta daudela, eta

hainbat balio helarazten dituztela, hala nola hurbiltasuna, zaintza, samurtasuna, konfiantza, elkarri laguntzea, errespetua, duintasuna eta konpromisoa.

- c. Tratuaren kalitatea: beste entitate batzuen tratuarekin konparatu da:** adeitasunean eta manera egokietan oinarritutako hezkuntza-harreman horrek eragin argi bat du: pertsona guztiak ondo sentitzen dira, sumatzen dutelako bata bestearen gaineko ardura hartzen dutela, eta horrek guztiak efektu nabarmena du pertsonen eguneroko bizitzan, eta elkartean bertan ere bai.

Gizarte- eta hezkuntza-arloko ekintza komunitarioaren inpaktu soziopertsonala

Bizitegiren ekintza komunitarioak oso inpaktu positiboa du profesionalengan, erabiltzaileengan, boluntarioengan eta auzokideengan. Estigmen eta aurreiritzien haustura askotan eta nabarmen aipatu da egindako elkarrizketa askotan.

Profesionalek aldaketak sumatu dituzte beren laguntzaren xede diren pertsonen begiratzeko auzokideek duten moduan, eta ildo beretik, auzokide horiek ere sentitu dute beren aurreiritziak ezabatu egiten direla pertsonak ezagutzen dituztenean. Alde horretatik, Bizitegik lan komunitarioko harreman estua du ikastetxeekin, eta horrek haurren ikuspegian duen inpaktu positiboa ere aipatu da elkarrizketetan. Izan ere, aurreiritziak ezabatzen dira eta agertoki inklusiboak zabaltzen dira horrela.

Bestalde, Bizitegiko erabiltzaileek esandakoen arabera, argi geratu da zer den beraientzat Bizitegi: "etxea", "aintzat hartzea", "aukerak", "bertan geratzeko moduko lekua".

Profesionalek, berriz, beste hiru gauza hauek nabarmendu dituzte erabiltzaileekiko lanean: ikaskuntza, eraldaketa pertsonala eta gogobetetzea. Profesionalen gaitasuna ere behin eta berriro aipatu da. Gizarte- eta hezkuntza-arloko eguneroko ekintza komunitarioak berezkoa du prozesu hori sustatzea, azaleratu egiten da, eta profesionalek gauza baliotsutzat eta zaindu beharrekotzat dute.

Elkarrizketatutako pertsonen iritziz, jarduera komunitario guztiak garrantzi handikoak dira; izan ere, pertsonen autoestimua indartzen dute, eta "zerbaiten partaide" direla sentitzen dute, elkarrekin gauzak egiten eta partekatzen jarraitzeko gogoak dute, eta oztopoak eta aurreiritziak hautsi egiten dira. Hitz batean, taldean bizitzen dira, harmonian eta elkarrekin konektatuta.

Azkenik, hona hemen efektuetako batzuk, laburbilduta:

a. Efectu pertsonalak

- Inklusioa auzoan
- Autoestimua handitzea
- Pertsona bezela ikustea
- Bizitza eraldatzea
- Ikastea
- Babesa sentitzea

- Gustura sentitzea
- Arazoak konpontzea

b. Efektuak auzoan

- Ekarpena egunerokoan
- Jendearen aurreiritziak eraldatzea
- Estigmak haustea
- Harremanak sortzea, elkar agurtzea, hizketan jardutea
- Auzoan eragitea

c. Efektuak profesionalengan

- Arazoak erlatibizatzea
- Gogobetetasuna
- Frustrazioa eta higadura emozionala
- Ikuspegia aldatzea
- Auzoa ezagutzea

Parte-hartze komunitarioaren zentzua eta ikuskera

Komunitatean parte hartzea errealitate honetan oinarritzen da: guztiok bizi gara komunitate batean eta bertako kide gara; komunitate horren parte gara, eta ez gara uharte batean bizi. Beraz, komunitatean parte hartzea berezkoa du pertsona orok, edo berezkoa izan beharko luke.

Alde horretatik, abiapuntu gisa, ulertzen da komunitatean parte hartzea giltzarria dela elkarteko pertsonen gizarte-inklusiorako, komunitate horretako kide sentitzeko, eta komunitatea egiteko.

Horrek berekin dakar parte hartzea oso modu irekian eta globalean ulertzea. Hau da, garrantzitsua da auzoko agente batzuek agertutako ideia bat jasotzea: Bizitegi hor egon dela beti, auzoan antolatutako jardueretan modu puntualean parte hartzetik harago, komunitatea horrela sortzen delako. Parte hartzea, gainera, landu beharreko prozesu bat da, tentu handiz, eta pixkanaka. Prozesu hori, gainera, bi norabidetakoa da, lankidetzakoa, eta elkarrekiko mendekotasunekoa: auzora atera behar da, baina atea irekitzea ere garrantzitsua da, auzoa Bizitegira sar dadin. Eta alde horretatik, pertzepzio orokorra da proposamen eta parte hartzeko modalitate desberdinetan aurrera egiten eta hazten joan dela.

Oinarritzko ideia horietatik abiatuta, jasotako iritziek helarazi digute parte hartzeak guztiei irekia egon behar duela eta, jakina, borondatezkoa izan behar duela. Alderdi horrek gogoeta bat baino gehiago eragin du Bizitegiko profesionalen artean. Beraz, eginkizun nagusietako bat motibazioa eta proaktibitatea lantzea da, Bizitegiko pertsonak jarduera komunitarioak sustatzera eta haietan parte hartzera gonbidatzeko, beren borondatez, parte hartu nahi dutelako, eta ez horretara derrigortuta daudelako. Horrek esan nahi du onartu egin behar dela beti izango dela parte hartu nahi ez duen jendea.

a. Testuinguruko alderdiak, parte-hartzeko prozesuetan eragina dutenak: ikusi da Bizitegin erabaki politiko nabarmena hartu dela, parte-hartze komunitarioa sustatzeko, gizarte-inklusiorako mekanismo eta estrategia gisa. Beraz, horixe da elkarrekin aurrera eramandako esku-hartze sozialeko prozesuen gakoetako bat da. Baina, aldi berean, Bizitegiko zentroak kokatzen diren auzoetan,

testuinguruari dagozkion hainbat alderdik ere sustatzen dituzte parte hartzeko prozesu horiek.

- b. Zer jarduera-motatan parte hartzen den:** hainbat motatako jarduera edo ekintzatan parte hartzen da, inplikazio-maila eta antolaketa-maila desberdinekin. Alde batetik, tokiko nahiz lurraldeko instituzio ofizialetatik antolatzen diren parte hartzeko prozesuak daude. Ekintza horiek dira, oro har, frustrazio gehien eragiten dutenak, zenbait gai ikuspegi politikoago batetik tratatzen direla onartzen bada ere.

Beste partaidetza-maila bat auzoko batzordeetan edo taldeetan parte hartzean datza. Jarduerak era askotakoak izan daitezke; besteak beste, ekitaldi zehatz bat antolatzea edo prestakuntza-ikastaroetan parte hartzea. Eta hirugarren partaidetza-mailari dagokio auzoetan antolatzen diren unean-uneko jardueretan parte hartzea.

Egindako landa-lanean, azpimarratu da Bizitegiko eta auzo jakin bateko (Uribarri auzoko) profesional batzuek erakusten duten lidergo pertsonala oso garrantzitsua dela jarduera-mota horiek bultzatzeko orduan. Hausnarketarako gaia da alderdi hori.

Horrekin lotuta, irizten da parte-hartze komunitario horietako asko Bizitegik gidatzen dituela, eta beharbada, aztertu egin beharko litzateke zer-nolako elkarlana egiten den eta zer zentzu duen.

- c. Parte-hartze komunitarioak pertsonengan dituen efektuak:** jarduera komunitario horietan parte hartzeak –orain arte aipatutako zentzuan eta aipatutako kontzeptuaren arabera parte hartzeak– hainbat efektu eragiten ditu parte-hartzaileengan. Hasteko, gozamina sortzen da, gogobetetzea, eta energia eta afektua ematen da; hori funtsezkoa da. Baina, horrez gain, parte-hartze horrek lagundu egiten du pertsona batzuei protagonismoa ematen eta besteen aurrean ikusgai bihurtzen. Begiradak eta harremanak aldatzeko aukera ere zabaltzen du, eta horrek komunitate-sentimenduak sendotzen du. Eta horren guztiaren ondorioz, gehiago ezagutzen eta aintzat hartzen ditugu prozesu horietan parte hartzen duten pertsonak.

- d. Jarduera partizipatibo komunitarioak abian jartzeko eta garatzeko aurkitutako zailtasunak:** egia da Bizitegiren lanerako filosofia argia dela, eta bistan dagoela zer-nolako ibilbidea egin duen lan komunitarioaren esparruan, baina, era berean, argi dago badirela prozesu horiek zailtzen dituzten hainbat faktore ere. Beraz, garrantzitsua da faktore horiek identifikatzea, lan-ildo horretan aurrera egin ahal izateko. Zailtasunen artean, azpimarragarriak dira baliabideekin lotutako batzuk, batez ere denbora falta eta jende falta, profesionalak batik bat.

Bestalde, parte hartzeko antolatutako jardueren ezaugarriek ere, batzuetan, zaildu egiten dute horietan parte hartzea. Adibidez, jarduerak egiteko ordutegiak, jarduerak eskatzen duten lan handia, edota zer motatako jarduerak diren, askotan jarduera mota batzuek berekin dakartelako alkohola kontsumitzea.

Antolaketaren inguruko gaiei dagokienez, berriz, elkartearen barneko komunikazio- eta informazio-kanalak nabarmendu dira, horiek ere batzuetan zaildu egiten baitute parte hartzea. Izan ere, horren ondorioz, informazioa falta izaten da, eta beraz, parte hartzeko aukerak ez dira ezagutzen.

Bestelako arazorik ere izaten da, arlo pertsonalekoak edo harremanen arlokoak. Alde batetik, Bizitegiko pertsonen ezaugarrietako batzuk direla-eta, nahitaez egokitu behar dira parte hartzeko aukerak eta moduak. Batzuetan, parte hartzeko interesa falta da.

Izaera sozial eta politikoko zenbait faktorek ere eragozten dituzte parte hartzeko proiektuak, batzuetan. Horri dagokionez, lehendik finkatuta dauden aurreiritziak eta ezarritako estigmak gainditu egin behar dira, eragozpen argiak baitira, bi aldeetatik beldurrak eta ziurgabetasunak eragiten dituztelako.

Azkenik, argi ikusten da eragile batzuek ez dutela laguntzen edo ez dutela ekarpen handirik egiten parte hartzeko jarduera komunitarioak abiarazi eta garatzeko orduan; esate baterako, komunikabideek, alderdi politiko eta kolektibo batzuek eta administrazioak, eskatzen duen burokrazia handiagatik.

3.

ONDORIOAK

Proiektuaren garapenean egindako lanek eta jarduerak, azken buruan, helburu bat dute; alegia, Bizitegik ekintzak eta programak aurrera eramaten dituen auzoetan komunitatearen ongizatearen aldeko lana egitea eta, ahal bada, ongizate hori hobetzea. Horretarako, lan horren prozesuaren diseinuaren bidez, sustatu nahi izaten da horretan inplikatzen diren pertsonen gaitasun profesionalak garatzea, metodologia kualitatibo inklusiboak sustatzen duen gogoetatik eta parte-hartzetik abiatuta.

Irakasle eta ikertzaileei dagokienez, ikerketa honen prozesuak aukera ematen du unibertsitatearen eta gizarte-erakundeen arteko harremanak sakontzeko, eta gizarte osoarentzat berritzaileak eta onuragarriak izango diren hezkuntza-arloko proposamenak planteatu ahal izateko. Esparru akademikoan, prozesuaren analisiak eta haren emaitzek eragina dute Gizarte Hezkuntzako Gradu ikasleen prestakuntzan, aukera ematen dutelako oraingo errealitate profesionalak ezagutzeko, irakaskuntzara eramaten baitira, aztertzeko kasu praktiko gisa, bai eta arazo praktiko gisa ere, haien aurrean oinarri zientifikoko konponbide profesionalak planteatzeko. Beste alde batetik, horrelako deialdiek mundu akademikoaren eta profesionalaren artean sustatzen duen konexioak, bi testuinguru profesional horien artean sinergiak sortzeaz gain, etorkizuneko profesionalen prestakuntzan lankidetzan aritzeko aukerak ere zabaltzen ditu.

Azken batean, proiektu honetako parte-hartzaileek ekarpenak egiten dituzte gizarte justuagoak eta ekitatiboak ahalbidetuko dituzten hezkuntza- eta gizarte-ekintzetan hobekuntzak lortzeko, eta ekarpen horiek eragiten dituzte, halaber, parte-hartzaileek espero ditzaketen onurak.

Gainera, erabiltzaileen eta komunitatearen ahotsetatik abiatuta, aukera gehiago sortzen dira pertsonak gizartean aitortuak izateko eta baldintza sozialak hobetzeko. Pertsona batzuek beren bazterketa-egoeraren ondorioz pairatzen dituzten estigmak eta aurreiritziak murriztuz gero, hobetu egiten dira bai gizarte-bizikidetzara eta bai komunitatearen kohesio-egiturak, eta zabaldu egiten da komunitateko pertsonen begirada. Gizartearen eta gizarte-zerbitzuen bilakaera dela eta, aztertutakoak bezalako proposamenak diseinatuz bideratzen dira bazterketa-egoeran dauden pertsonen alde diharduten elkarteak, irtenbide bakartzat enplegua jotzen zuen ikuspegia atzean utzita. Bizitegiren ekintza komunitarioak, beraz, gizarte-bizikidetzarako eta garapen pertsonalerako ibilbide desberdinak eskaintzeko modu gisa planteatzen dira, proiektuan parte hartzen duten pertsonen gaitasunetatik abiatuta, komunitateari pertsona horien gaineko beste ikuspegi bat eskainita. Hala, estigmatizazioa saihesten lagundu nahi da, pertsona horiei ohikoa ez duten rol batean jardutea eskainiz, eta Gizarte Zerbitzuen erabiltzaile edo bezero izatetik beren hurbileko komunitateko eragile aktiboak izatera igaroz. Horrez gain, harreman dinamikoak eragiten dira komunitatean, "ez-merkatuzkoak", parte hartzen duten pertsonentzat eta kolektiboarentzat ongizatea lortzea bilatzen dutenak onuratzat. Izan ere, aldaketa eragiten duen motor gisa ulertzen dugu

elkartasuna. Ikuspegi-aldaketa hori arrakasta handitzat joenezake, baldin eta komunitateak ulertuko balu zenbateraino den garrantzitsua dibertsitatea onartzea, hori baita inklusioaren oinarria. Eta, era berean, arrakastatzat joko genuke, baldin eta ulertuko balitz garapen kolektibo/sozialak zerikusi handia duela bertako kide guztien garapen pertsonalarekin (desberdinak izan arren autonomia-maila, nazionalitatea, jatorria, generoa, adina, etab.) eta beren artean eraten duten harreman-sarearekin. Beraz, argi geratu da sektoreko elkarten lana dela bertako lanaren xede diren pertsonen laguntzea, aktibatze sozialaren bidetik, garapen komunitarioko aukerak sortuz, bertan pertsonen parte hartu dezaten eta beren ekarpena egin ahal izan dezaten, beren gaitasunen eta esperientziaren arabera. Orain gutxi arte, gizarte-bazterketari aurre egiteko moduen oinarria izaten zen talde batzuk identifikatzea, arazo jakin batzuk izateagatik gizartetik kanpo edo bazterrean bizi zirenak, eta haiekiko zuzeneko jarduketak planteatzea. Eredu horren arabera, esku-hartzea norbanakoen gainean egiten zen, haien ingurunea aintzat hartu gabe. Pertsona eragile nagusia, eta kasu batzuetan ia bakarra, profesionala izaten zen. Gure analitikan ondorioztatu dugu bazterketaren aurka egiteko modu berriek beste eragile batzuen interakzioa eskatzen dutela. Alde batetik, herritarren mugimenduak, bat eginda pertsona askori ahotza ematen dietenak, edo haien eskubide sozial eta politikoen alde jarduten dutenak (Fernández & Egido, 2014; Ruiz, 2017). Talde horiek, gainera, asistentzia, babesa eta laguntza eskaintzen dizkiete “instituzionalizatutako elkartasunetik kanpo” geratzen diren kolektiboak (Ruiz, 2017, 75. or.). Beste alde batetik, herritar-taldean daude boluntarioak eta elkarri laguntzeko taldeak (Gallego, 2011). Modu zabalagoan, Pascualek (2007) eragile edo agentetzat jotzen ditu administrazioa, elkarten sarea eta herritarrak. Vargas et al. (2014) egileek agente nabarmentzat jotzen dituzte auzokoak, profesionalak eta instituzioak. Ildo beretik, Morata-k (2014) pedagogia sozial komunitarioaren ereduaren arabera esku hartu behar duten eragileak zein diren definitzen du: entitateak, profesionalak, administrazio publikoak, familia eta lagun egiten zaientzako pertsonak.

Azaldutako eta aztertutako orotik, ondoriozta dezakegu ezen: “Bizitegik” bere lan-esparrua den auzoarekin zuzenean lotutako erakunde eta elkarteetan parte hartzea sustatzen du, hau da, komunitatea bera hobetzeko ikuspegia hartuta egiten du lan. Gainera, auzoetan parte hartzeko eta auzoak ezagutzeko egindako lan guztiaren bidez, erakunde eta elkarte horiek erreferenteak dira auzoetan, alegia, Ronnby-k (2013) *Leading Lights* deiturikoak dira: gune bat, non auzokideek, elkarteek eta ikastetxeek modu desberdinetan elkarlanean aritzeko ekimenak planteatzen dituzten. Hala, Bizitegiren lan komunitarioari esker, gizarte-bazterketaren maila murriztu egin daiteke, kapital soziala garatzearen bidez, Komunitate Konpetenteen ikuspegitik lan eginez, (Dalton, Elias & Wandersman, 2001): pertsonen konpromisoa, komunikazioa eta lankidetzaren esanahi partekatua batean oinarrituta, komunitatearen eta gizarte zabalagoaren arteko harremanen kudeaketa egokia, komunitatean dauden baliabideen erabilera egokia, komunitatearen arazoei buruzko ekintza gogoetatsua eta ebaluazioa, arazo horiei erantzutea, eta hobekuntza-prozesuak atzeralikatzea.

Azkenik, gogorarazi beharra dago helburu komun bat duten pertsonen artean lotura sendoa eratuz hasten dela lan komunitarioa. Bizitegin, egunero-egunero guztion ongiaren alde lanean diharduten eta bizitza partekatzen duten pertsonen lortu dute elkarteetan dauden pertsonen taldeko kide direla sentitzea, helburu komunen alde lan egitea eta jendaurrean hala adieraztea. Elkarteko hezitzaile-taldeak eta bazterketa-egoeran dauden pertsonen, berez, senidetasun-sentimendua dute, eta hala agertzen dute beren burua auzoetan. Baina entitatean dauden pertsonen gain, auzokideak ere eskertuta agertzen dira, aukera dutelako auzoan beren eguneroko bizitzan, boluntario-lanetan eta ekintza komunitarioetan elkarteko pertsonekin interakzioan jardunda gizarte-desberdinkeriez eta pertsona horien zaugarritasun handiko egoeraz ohartzeko eta estigmak hausteko, eta haien guztien komunitateko bizitza hobetzen laguntzeko.

Auzokideek, pertsona horiek ezagutzen dituztenean, miresmena sentitzen dute haiekiko, oso balorazio ona egiten dute profesionalen lanaz, eta modu aktiboan parte hartzen dute abiarazitako ekintzetan. Hori guztia posiblea da, komunitate horren oinarrian balio partekatuak daudelako; alegia, bizitza duina izateko eskubidetik eta bizitza errespetuz eta elkartasunez partekatzeko eskubidetik sortutako balioak.

4.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Butler, I. (2002). A Code of Ethics for Social Work and Social Care Research. *The British Journal of Social Work*. 32 (2), 239–248. <https://doi.org/10.1093/bjsw/32.2.239>
- Cabo, A., Fernández, I., Beloki, N. & Martínez Monje, P.M. (2021). Acciones comunitarias para prevenir la exclusión social. En Aznar Díaz, A., Rodríguez Jiménez C., Ramos Navas-Parejo, M & Gómez García, G. (Eds.), *Desafíos de la investigación y la innovación educativa ante la sociedad inclusiva* (pp. 1310-1319). Dykinson.
- CIOMS. Consejo de organizaciones internacionales de las ciencias médicas. (2002). Pautas éticas internacionales para la investigación biomédica en seres humanos. Ginebra.
- Dalton, J. H., Elias, M. J. & Wandersman, A. (2001). *Community psychology. Linking individuals and communities*. Wadsworth, Thomson Learning.
- Eito, A. & Gómez, J. (2013). El concepto de comunidad y trabajo social. *Revista Espacios Transnacionales*, 1, 10-16.
- Endorsement & Quality Standards Board. (2017). Current Community Development Practice and Learning - A Snapshot. Recuperado de <http://esbendorsement.org.uk>
- Fernández, A. & Egido, R. (2014). El trabajo social comunitario “¡Sí se puede!”: Ejemplos prácticos de satisfacción de necesidades sociales. *Azarbe*, 3, 263-269.
- Fuentes, J.L. & García-Bermejo, T. (2014). Formación de la identidad y relación educativa en contextos de dificultad social: el acogimiento en familia extensa. *Revista Española de Pedagogía*, 257, 145-160.
- Funes, J. & Raya, E. (2001). El acompañamiento y los procesos de incorporación social, Guía para su práctica. Federación Sartu, Dirección de Bienestar Social, Gobierno Vasco.
- Gallego, C. (2011). El apoyo inclusivo desde la perspectiva comunitaria. *Revista interuniversitaria de formación del profesorado*, 70, 93-109.
- García-Pérez, A. & Mendiá, R. (2015). Acompañamiento educativo: el rol del educador en aprendizaje y servicio solidario. Profesorado, *Revista de curriculum y formación del profesorado*, 19, 1 42-58.

- Hamzaoui, M. (2005). El trabajo social territorializado: las transformaciones de la acción pública en la intervención social.
Recuperado de: https://naullibres.com/wp-content/uploads/2019/06/9788476427088_L33_23.pdf
- Jaraíz, G. (2009). El Tercer Sector de Acción Social en la intervención comunitaria. *Revista española del tercer sector*, 12, 101-128.
- Longas, J., Querol, R., Ciraso-Cali, A., Riera, J. & Úcar, X. (2018). Redes de acción socioeducativa contra la pobreza infantil. Evaluación de la percepción de impacto del programa CaixaProinfancia. *Revista de Estudios y Experiencias en Educación Número Especial*, 2, 109–126.
- Marchioni, M. (2014). De las comunidades y de lo Comunitario. *Reflexiones Críticas. Espacios transnacionales: revista latinoamericana-europea de pensamiento y acción social (Ejemplar dedicado a: Salud, cuerpo y comunidad)*, 3, 112-118.
- Martinis, P. (2015). Infancia y educación: pensar la relación educativa. Espacios en Blanco. *Revista de Educación*, 25, 105-126.
- Mesía, Rubén. (2007). Contexto ético de la investigación social. *Investigación Educativa*, 11 (19), 137-151.
- Morata, T. (2014). Pedagogía Social Comunitaria: un modelo de intervención socioeducativa integral. *Educación Social*, 57, 13-32.
- Moreno, L. (2012). *La Europa asocial: crisis y Estado del bienestar*. Península.
- Mori, M.P. (2008). Una propuesta metodológica para la intervención comunitaria. *Liberabit*, 14, 81-90.
- Ngo, B., Dyke, E. & Lobello, J. (2018). Connecting as “Family” in educative relationships: insights from a media program serving Hmong immigrant youth. *Urban Education*, 53 (9), 1126-1153.
- Nind, M. (2021). *Inclusive research: research methods*. Bloomsbury Academic.
- Núñez, H., Crespo, E., Úcar, X. & Llena Berñe, A. (2014). Enfoques de evaluación orientados a la participación en los procesos de acción comunitaria. *Pedagogía Social. Revista Interuniversitaria*, 24, 79-103.
- O’Grady, E. (2015). Establishing respectful educative relationships: a study of newly qualified teachers in Ireland. *Cambridge Journal of Education*, 45 (2), 167-185.
- Parcerisa, A., Giné, N. & Forés, A. (2010). *La educación social. Una mirada didáctica*. Graò.
- Pascual, B. (2007). La evaluación de la intervención comunitaria: un marco para la reflexión. *Pedagogía social*, 14, 129-138.

- Ribeiro, M. (2010). A afetividade na relacao educative. *Estudos de psicologia*. 27 (3), 403-412.
- Ronnby, A. (2013). We need the community. *Revista Internacional de Trabajo Social y Bienestar*, 2, 21-31.
- Ruiz, C. (2017). La educación social ante el revés de la globalización. *RES, Revista de Educación Social*, 25, 67-78.
- Ruiz, P., Aresti, A. & Ipiña, A. (2017). Activación socio comunitaria: claves para la inclusión y la cohesión social. *Revista de Servicios Sociales*, 64, 227-237.
- Sales, A., Ferrández-Berruenco, R., Sanahuja A. & Moliner, O. (2022): Knowledge mobilisation strategies for responsible and inclusive academic research. *European Journal of Higher Education*, <https://doi.org/10.1080/21568235.2022.2113904>
- Sánchez, F.J. & López, L.M. (2016). La relación educativa desde la perspectiva ética del desempeño docente. *Revista de Ciencias de la Comunicación e Información*. 21 (1), 45-65.
- Tsabar, B. (2017). Educational work as a labor of love. *Policy Futures in Education*, 15(1), 38–51.
- Úcar, X. (2018). La pedagogía social frente a las desigualdades y vulnerabilidades en la sociedad. *Zona Próxima*, 29, 52-69.
- Vargas, G., Varela, L., & Aparicio, P. C. (2014). Aproximación educativa y social a la acción comunitaria en España y Alemania. *RES, Revista de Educación Social*, 19.
- Zarandona, E., Cabo, A., Fernández, I., Gorbeña, S. & Parga, I. (2021). La cultura ética del cuidado en la investigación inclusiva, En Álvarez-Rementería, M., Darretxe, L., Gezuraga, M & Beloki, N. (coords) *Escenarios y estrategias socioeducativas para la inclusión social* (pp 35-46). Graò.